

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EAE-KO PROGRAMA



JARRAIPEN-MISIOA KOLONBIA 2022

2022ko urtarrilaren 23tik 29ra

*"Prest izango gaituzue bakerako,
inoiz ez gerrarako"*

(Consejería de Derechos Humanos, OIA), Medellín

Txostenaren egilea:

(zehar)
errefuxiatuekin

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa:



Laguntzailea:



Bilbo, 2022.

EDUKIEN AURKIBIDEA

EAE-KO TALDEA.....	4	ORDEZKARIEN
EGINDAKO BILERAK.....	5	
BALORAZIOA ONDORIOAK.....	7	ETA
BIBLIOGRAFIA.....	25	

OSAERA

EUSKO JAURLARITZA

José Antonio Rodríguez Ranz, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea

Monika Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria

Nerea Cambra Becerril, teknikaria eta gizarte-langilea, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza

Noemí de la Fuente Pereda, eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzuko arduraduna.

Ana Rojo González andrea, eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zerbitzu Juridikoko arduraduna.

EUSKO LEGEBILTZARRA (GIZA ESKUBIDE, BERDINTASUN ETA JUSTIZIA BATZORDEA)

Leixuri Arrizabalaga Arruza (Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko lehendakaria. Euzko Abertzaleak- Nacionalistas Vascos)

Iñigo de Iturrate Ibarra (Euzko Abertzaleak, Nacionalistas Vascos)

Oihana Etxebarrieta Legrand (EH-Bildu)

Miren Gallastegui Oyarzábal (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Iñigo Martínez Zatón (Elkarrekin Podemos-IU)

Carmelo Barrio Baroja (Euskal Talde Popularra-Ciudadanos)

Juan Carlos Areizaga Hernandez (legelaria)

GIZA ESKUBIDEEN ETA LANKIDETZAREN ARLOKO ERAKUNDEAK

Lorea Undagoitia Rivero, Mugarik Gabe elkarte

Leire Morquecho Errasti, Alboan fundazioa

Luis Eduardo Royero Jiménez, Mugarik gabeko Etorkinak elkarte

Alberto Cereijo Fernández, Zehar-Errefuxiatuekin elkarte

Leire Lasa Fernández, Zehar-Errefuxiatuekin elkarte

EGINDAKO BILERAK

Santander de Quilichao (Valle del Cauca). 2022ko urtarrilaren 23a

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Asociación de Cabildos Indígenas del Norte del Cauca (ACIN)
- Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC)
- Asociación Nacional de Usuarios Campesinos (ANUC)
- Consejo Territorial Interétnico e Intercultural¹
- Proceso de Comunidades Negras (PCN)

Medellín (Antioquía) 2022ko urtarrilaren 24a

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Organización Indígena de Antioquía (OIA)

Erakunde publikoak

- Mesa humanitaria indígena de DDHH de Antioquia²

Montería (Córdoba). 2022ko urtarrilaren 23a

- Corporación para el Desarrollo Social Comunitario (CORSOC)
- Corporación Desarrollo y Paz de Córdoba y Urabá (Cordupaz)
- Resguardo Mayor del Alto San Jorge

Bogota. 2022ko urtarrilaren 26-29a

Giza eskubideen aldeko elkarteak

- Centro de Investigación y Educación Popular (CINEP)
- Campaña Defender la Libertad, un asunto de todas
- Instituto de Estudios para el Desarrollo y la Paz (Indepaz)
- Plataforma Colombiana de Derechos Humanos, Democracia y Desarrollo

¹ Consejo Territorial Interétnico e Intercultural kontseiluko kide dira elkarte hauek: Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC), Proceso de Comunidades Negras (PCN), Asociación Nacional de Usuarios Campesinos de Colombia (ANUC) eta Asociación de Cabildos Indígenas del Norte del Cauca (ACIN),

² Mahaia hauek osatzen dute: Gobernación de Antioquia (Gerencia Indígena, Secretaría de Gobierno, Paz y no Violencia, Secretaría de Inclusión Social), Unidad para la Atención y Reparación Integral a las Víctimas (UARIV), Defensoría del Pueblo, Personería Delegada para los Derechos Humanos y Asuntos Étnicos, Procuraduría Provincial del Valle de Aburrá, Organización Indígena de Antioquia (OIA), Alto Comisionado para la Paz, Instituto Colombiano de Bienestar Familiar, Unidad Nacional de Protección (UNP), Unidad de Restitución de Tierras, ACNUR, MAPP OEA, Unidad de Búsqueda de Personas Desaparecidas (UBPD), Jurisdicción Especial de Paz para Asuntos Indígenas, Colombia Libre de Minas, PNUD, Mesa de Víctimas mahaiko ordezkaria eta gonbidatu bereziak.

- PBI (Peace Brigades International)
- Vivamos Humanos fundazioa
- Secretaría Técnica del Componente de Verificación Internacional de la Comisión de Seguimiento, Impulso y Verificación (CSIVI) a la Implementación del Acuerdo Final³

Nazioarteko erakundeak

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH): Herrialdeko ordezkaria
- Iheslarientzako Nazio Batuen Goi-komisarioa (ACNUR)

Kolonbiako erakunde publikoak

- Agencia Nacional de Tierras (ANT)
- Defensoría del Pueblo
- Unidad para la Atención y Reparación Integral de las Víctimas (UARIV)
- Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad (CEV)

Diplomaziako kideak

- Espainiako enbaxada
- Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID)

³ Haren zeregina da erabakiak eta txostenak prestatzea handikientzat edo egiaztatzaileentzat Azken Erabakian jasotako puntuen ezarpenaren egiaztapen edo ikuskapenari buruz, baita, ezarpen-fasean sortzen diren desadostasunei buruz eta desadostasunak konpontzeko proposamenei buruz, Azken Akordioaren ezarpena bake egonkor eta iraunkorra eraikitzeko baliagarria izango dela bermatzeko.

Azken Akordioaren arabera (6.3.2), Azken Akordioaren Comisión de Seguimiento, Impulso y Verificación a la Implementación (CSIVI) batzordeak Centro de Investigación y Educación Popular (CINEP) eta Centro de Recursos para el Análisis del Conflicto (CERAC) zentroak izendatu zituen Secretaría Técnica del Componente Internacional de Verificación idazkaritza osatzeko, 2017ko martxoaren 23ko 15 zenbakiko Erabaki Bateratuaren bidez.

BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa⁴ **elkartasun politikoa adierazteko tresna** da, eta mehatxuen eta jazarpenaren mendeko egoeretan jarduten duten giza eskubideen defendatzaileak **babesten laguntzea** du helburu. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu EAEko ordezkariak lekuan bertan bisita egitea.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideak defendatzen dituzten taldeak, erakundeak eta komunitateak, liskarrak izaten diren tokietan. Esperientzia eta ezagutza horiek ekarpen oso garrantzitsua dira gizarte-eraldaketarako gure prozesuetan.

EAEko ordezkariok eskerrak eman nahi dizkiegu giza eskubideen erakundeei, afrikarren ondorengoan eta indigenen erkidegoei eta herri-sektoreei, jaso dugun harreragatik eta bizitza duina eta lurraldea babesteko eta gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeke egiten duten lan nekaezinagatik. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki hainbat urtetan EAEko programan parte hartu duten erakunde hauei: Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC) elkarteari, Organización Indígena de Antioquía (OIA) erakundeari eta Resguardo Mayor del Alto San Jorge (Córdoba) erakundeari. EAEko ordezkariak arreta berezia jarriko dugu haien segurtasuna eta babesa zaintzeko, baita helarazi dizkiguten eskaerak bete daitezen ere.

Era berean, gure esker ona adierazi nahi diegu erakunde hauei ere: Proceso de Comunidades Negras (PCN), Asociación de Cabildos Indígenas del Norte del Cauca (ACIN), Asociación Nacional de Usuarios Campesinos (ANUC), Centro de Investigación y Educación Popular (CINEP), Corporación para el Desarrollo Social Comunitario (CORSOC), Corporación Desarrollo y Paz de Córdoba y Urabá (Cordupaz), Defender la Libertad un Asunto de Todas kanpaina, Plataforma Colombiana de Derechos Humanos, Democracia y Desarrollo, Instituto de Estudios para el Desarrollo y la Paz (Indepaz), Brigadas Internacionales de Paz (PBI Colombia) eta Vivamos Humanos fundazioa.

Eskerrik asko guztiei zuen proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak eskuzabaltasunez partekatzeagatik.

Halaber, eskertzekoak dira Kolonbiako erakunde publikoek, Espainiak Kolonbian duen enbaxadak, Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) agentziak, Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad (CEV) batzordeak, Secretaría Técnica del Componente de Verificación Internacional de la Comisión de Seguimiento, Impulso y Verificación a la Implementación (CSIVI) del Acuerdo Final idazkaritza teknikoak, Iheslarietzako Nazio Batuen Goi-komisarioak (ACNUR) eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoko (OACNUDH) Kolonbiako ordezkariak eskaini diguten denbora eta elkarlana.

⁴ <https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak/web01-s1lehbak/eu/>

Bilerak egin, lekukotzak jaso eta dokumentazioa aztertu ondoren, EAEko ordezkartzako kideok hau **ADIERAZTEN DUGU**:

LEHENA: ERRESPECTU, BABES ETA ELKARTASUN sakonena adierazi nahi diegu **giza eskubideen defendatzaileei, herri indigenei, komunitate beltzari eta nekazarien komunitateei**, indarkeriaren eta gatazkaren biktima nagusiak baitira. Publikoki aitortu nahi dugu subjektu politiko eraldatzaileetat betetzen duten eginkizuna, bizitza duina defendatzeko egiten dute lan zilegi eta funtsezkoa eta herrialdean gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitze hartu duten konpromisoa. Gizarte-protesta eraldaketa sozial eta politikorako tresna gisa baliatzeko duten eskubide legitimoa aldarrikatzen dugu.



Gure babesa adierazi nahi diegu **OACNUDH**ren lanari, funtsezko erakundea baita giza eskubideak defendatzeko eta bakea eraikitze.

Egia, Justizia, Erreparazio eta Ez Errepikatze Sistema Integralarekiko KONPROMISOA berresten dugu. Sistema hori erakunde hauek adostutako bake-akordioen ondorio da: Gobernu Nazionala eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak – Herriaren Armada (FARC-EP), CEV, Bakerako Jurisdikzio Berezia (JEP) eta Unidad de Búsqueda de Personas Dadas por Desaparecidas (UBPD) unitatea.

Azkenik, esan behar dugu orainoan, zoritxarrez eta lehen aldiz, Unidad Nacional de Protección (UNP) unitateak ez gaituela hartu, agenda-arazoak zituztela argudiatuta.

Herrialde horretara egin genuen bisita eta gero, dirudienez bi grabagailu eta ordenagailu bat lapurtu zituzten CEVeko ikertzaile baten etxean. Lapurreta hori Darío Antonio Usuga David, "Otoniel" ezizenez, Golkoko Klaneko – paramilitarismoaren oinordeko diren legez kanpoko talde armatuetako bat daburu ohiari egindako elkarrizketaren ondoren gertatu zen. Otonielek talde armatuak Indar Publikoarekin zituen harremanei buruz hitz egitea onartu zuen.

Bat egiten dugu gertaera larri hauek direla-eta OACNUDHek adierazitako gaitzespenarekin, halakoek arriskuan jartzen baitituzte Batzordea osatzen dutenen osotasunerako eta bizitzarako eskubideak eta biktimen egiarako eskubidea.

Halaber, bat egiten dugu CEVek agintari eskudunei egin dien eskaerarekin, gertatutakoa arduraz eta modu eraginkorrean iker dezaten eta funtzionarioak eta ikerketetan lortzen duten informazioa babes ditzaten.

BIGARRENA: Berriaz **SALATZEN DUGU** indarkeria areagotu izana eta **gatazka larriagotu izana**; horrek eraso, sarraski, erailketa, mehatxu eta landa-komunitateen eta giza eskubideen defendatzaileen lekualdatze behartu masibo gehiago dakartza.

2016ko bake-akordioak sinatu zirenetik, agerikoa da giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeriak izandako gorakada, 2019an herrialde horretara egindako jarraipen-misioan egiaztatu bezala⁵. Ordutik hona, oraindik gehiago okertu da egoera. Hainbat iturrik berresten dute datu hori.

⁵ <https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak/web01-s1lehbak/eu/>

Front Line Defenders erakundearen arabera, gutxienez giza eskubideen 331 defendatzaile erail zituzten munduan 2020an (287 gizon eta 44 emakume), eta haietatik % 53 (177 pertsona) kolonbiarrak ziren. Indepazen datuen arabera, bake-akordioa sinatu zenetik gaur arte, 1.316 lider erail dituzte; hori dela eta, Kolonia **munduko herrialde arriskutsuenetako bat da giza eskubideak defendatzeari dagokionez**. Indarkeria horrek gudari ohiei ere eragin die: 304 sinatzaile erail dituzte 2016tik gaur arte. Nazio Batuen Erakundeak esan duenez, indarkeria hau da lurraldeetan itzultze-prozesuak sendotzeko oztopo nagusia⁶.

JEPeko Unidad de Investigación y Acusación unitatearen arriskuak monitorizatzeko mekanismoaren zifren arabera, akordioak sinatu zirenetik, 2021a izan da sarraski, lekualdatze behartu eta Indar Publikoaren eta legez kanpoko talde armatuen arteko borroka gehien izan diren urtea⁷.

Mekanismo horren arabera, 93 sarraski izan ziren urte horretan. Indepazen arabera, 96. Haien erdia Cauca, Antioquía, Valle del Cauca eta Nariñon izan zen.

Horrez gainera, NBERen Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoak jakinarazi zuen 72.600 pertsona inguru lekuz aldatu zituztela, eta 65.200 konfinatu egin zituztela, behartuta.

2022. urtean, egoerak oso kezkagarria izaten jarraitzen du. EAEko ordezkaritza herrialdean izan den astean (urtarrilaren 23tik 29ra) ere, erailketak, atentatuak, adingabeen bahiketak eta beste gertakari oso larri eta bortitz batzuk gertatu dira. Bereziki kezkagarria da Arauca departamenduko eta Caucako egoera. Gertaera horiek guztiak salatzen ditugu, eta gogora ekarri nahi ditugu, berariaz, Consejo Regional Indígena del Cauca (CRIC) kontseiluko Breiner David Cucuñame eta Albeiro Camayo nasa herriko guardia indigenak. CRICek EAEko programan parte hartu du zenbait urtez.

Indarkeriaren gorakada hau asaldagarria da. Otsailaren 15erako, Indepazek 19 sarraski eta 22 lider sozialen erailketak kontabilizatu zituen.

Martxoaren 1ean, JEPek, erakundeek indarkeria prebenitzeko estrategiarik ez zutela egiaztatu ondoren, Juan Camilo Restrepo Bakerako goi-komisarioari agindu zion Comisión Nacional de Garantías de Seguridad (CNGS) batzordearen eskumenak aktibatze eta legez kanpoko erakunde armatuak desegiteko plan bat ezartzeko. Martxan jarri zenetik bost urte igaro eta gero, CNGSk ez dauka lanerako barne-erregelamendurik.

Egoera horren aurrean, gure kezka eta salaketa plazaratu nahi ditugu dagoen **zigorgabetasun**-maila izugarria dela eta. Gertaera horien gaineko ikerketek emaitzarik ez izateak halakoak berriro gertatzea sustatzen du eta indarkeriak gora egitea eragiten du.

HIRUGARRENA: Aurreko puntuari kontrajarrita, egiaztatu dugu nabarmen areagotu dela **giza eskubideen defendatzaileen aurkako jazarpen judiziala**, asaldagarria izateraino. 2019an ere salatu genuen inguruabar hori. Orduan egiaztatu genuen atxiloketa masibo eta arbitrarioak eta defendatzaileen aurkako prozesu judizialak lurraldeetako erresistentzia-prozesuak, pentsamendu kritikoa eta oposizio politikoa desegiteko estrategia bat osatzen zutela.

⁶ <https://colombia.un.org/es/168181-la-violencia-contra-excombatientes-en-colombia-sigue-siendo-la-mayor-amenaza-para-su>

⁷ <https://www.elespectador.com/judicial/2021-fue-el-ano-con-mas-masacres-y-desplazamientos-desde-el-acuerdo-de-paz-jep/>

2021ean, **aurrekaririk gabeko gizarte-etzanda** bat eman zen herrialdean. Atsekabearen eta Estatuaren zilegitasunik ezaren adierazpen horrek mugarri bat ezarri zuen, zeina aspalditik eratzten ari baitzen. Aurrekaririk hurbilena 2019ko azaroko protestak dira, eta zenbait faktorek azaltzen dituzte mobilizazio herritarrek: herrialdeak izan dituen bake-prozesuetan adostutakoa ez betetzeak eragindako frustrazioa, lider sozialen erailketak, justiziaren krisia (% 98ko zigorgabetasuna), paramilitarismoaren garapena FARC-EP taldearen desmobilizazioarekin bat (erakunde askok jarrera tolerantia izan dute garapen horren aurrean), Iván Duqueren gobernuak 2016ko bake-akordioa ez betetzea, pandemian hartu ziren eta ekonomia nazionalari eragin zioten neurriak, etab. Puntu honetan, sektore aberatsenei mesede egin zien tributu-erreforma lanuzte nazionalaren abiapuntua izan zen. Protesta progresibo eta masiboek 2021eko apirilean izan zuten klimaxa.

Mobilizazio masibo eta baketsu horien aurrean, Estatuaren erantzuna izan zen **indarraren gehiegizko eta neurritz kanpoko erabilera, kasu askotan indar hilgarria barne**. Hala egiaztatu zuten Comisión Interamericana de Derechos Humanos (CIDH) batzordeak herrialdera egin zuen bisitak (2021eko ekainaren 8tik 10era) eta Kolonbiako gizarte protestaren bermeen aldeko eta zigorgabetasunaren kontrako nazioarteko behaketa-misioak, 2021eko uztailaren 3tik 12ra bitartean egin zuen bisitan⁸.

Bere txostenean, CIDHk gai publikoetan herritarrek izandako parte-hartze masiboa nabarmentzen du, zeinaren oinarrian Kolonbiako Konstituzio Politikoaren 37. artikuluan jasotako eta Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioak babestutako protesta publiko eta baketsurako eskubidea baitago. Eta adierazten du mobilizazio horiek gazteen eskabide sozial batzuk eztabaida publikoan sartzea ahalbidetu dutela: osasunerako eta hezkuntzarako sarbide unibertsala edo Polizia Nazionalaren ezinbesteko erreforma.

Kezka nagusien barruan, protestaren barruan erabilitako neurritz kanpoko indarkeriaz gainera, generoan oinarritutako indarkeria, etnia/arrazagatiko indarkeria, kazetarien eta osasun-misioen aurkako indarkeria, babesaren ondoriozko lekualdaketetan izandako irregulartasunak eta desagerpenen salaketak aipatu zituen, baita laguntza militarren, diziplina-ahalmenen eta zigor-arloko jurisdikzio militarren erabili direla ere.

Gure **KEZKA** adierazten dugu protesta sozialaren kriminalizazioa dela eta, zeina larriagotu egin baitaiteke duela gutxi onetsitako Herritarren Segurtasunerako Legearen ondorioz. Hori dela eta, handitu egingo da mobilizazioetan parte hartu zuten pertsonak judizializatzeko arriskua, batez ere beren oinarritzko eskubideak modu baketsuan aldarrikatzera ateratzen zirenean gazteak judizializatzeko arriskua.

LAUGARRENA: Gure **kezka eta salaketa** adierazi nahi ditugu zenbait lurraldetan bizi den egoera dela eta. Izan ere, lurraldeotan interes ekonomikoak gailentzen dira giza eskubideen betearazpenaren eta pertsonen babesaren gainetik, eta eragile armatuak lurraldeok okupatzen ari dira, kontrola norik bereganatuko. Talde

⁸ Misioa 14 herrialdetako (Estatu Batuak, Kanada, Katalunia, EAE, Espainia, Italia, Alemania, Britainia Handia, Mexiko, Ekuador, Txile, Belgika, Guatemala eta Vatikanoko Hiria) 41 pertsonak osatu zuten. Giza eskubideen aldeko erakundeetako kideak, legelariak, elizako kideak, akademikoak eta kazetariak ziren. Comité de Solidaridad con Presos Políticos fundazioak, Forjando Futuros fundazioak, Centro de Investigación y Educación Popular/Programa Por la Paz (Cinep/PPP) zentroak, Instituto de Estudios para el Desarrollo y la Paz (Indepaz) institutuak, Corporación Jurídica Libertad korporazioak, Comisión Intereclesial de Justicia y Paz batzordeak, Defender la Libertad un Asunto de Todas kanpainak eta giza eskubideen aldeko plataforma batzuek (Alianza de organizaciones Sociales y Afines, Coordinación Colombia Europa Estados Unidos eta Plataforma Colombiana de Derechos Humanos, Democracia y Desarrollo) egindako deialdi argenteari erantzun zion misioak.

horiek sistematikoki urratzen dituzte emakumeen, umeen, beltzen, indigenen eta nekazari-erkidegoen eskubideak. Egiaztatuta dago **lurraldea kentzeko** tresna gisa erabiltzen dela indarkeria; hartara, besteak beste, enpresa-inbertsioa sartzea ahalbidetzen da, ondasun komunak ustiatu nahi dituzten megaproiektuen bidez (hidroelektrikoak, meatzeak, azpiegiturak, kanabera-industria, esate baterako). Errealitate hori bisitatu diren hiru lurraldeetan ematen da. Hain zuzen ere, lurralde horietakoak dira EAEko programan sartuta dauden defendatzaileak, eta haien egoera indibidualaren eta kolektiboaren jarraipena egitea izan da bisitaren helburua.



Esparru horretan, adierazi nahi dugu errekrutatze behartua -nerabe eta adingabeak dira gehienak- eta pertsonen kontrako minak jartzea berriro direla herrialdean dauden talde armatuen gerra-

jardunaren ardatz. JEPek berretsi egin du lurraldeetatik helarazi diguten salaketa hau. 2021a urterik larriena izan da akordioak sinatu zirenetik: adingabeen 89 errekrutatzeren berri jaso dugu. Zifra hori 121 biktimara iristen da Instituto Colombiano de Bienestar Familiar (ICBF) institutuaren 2021eko urriko datuen arabera.

Adingabeak kolektibo bereziki zaugarria dela kontuan hartuta, uste dugu ezinbestekoa dela ikerketa eta zehapena sustatzea, baita prebentzioa eta lehengoratzeko eta gizarteratzeko neurriak ere. Gurekin bildu diren erakunde guztiek enfasi berezia jarri dute gai honek sortzen dien kezkan.

Programak abian daramatzen 10 urtean, herrialdera segimendua egiteko zenbait bisita egin ondoren, lehen aldiz ezin izan dugu lurraldeetara sartu, segurtasuna dela-eta. Modu berean, ez dira betetzen ere nazioarteko erakundeen eta kontrol-erakundeen sarrera bermatzeko baldintzak. Hori guztia komunitate etnikoek eta giza eskubideen defendatzaileek bizi duten segurtasunik ezaren erakusle argia da.

Eragin handiena jasaten ari diren lurraldeak legez kontrako ekonomia (meataritza, legez kontrako laborantzen hedapena...) gehien dituztenak dira. Gure ustez, beharrezkoa da lurraldeetan erakunde-presentzia integrala, eta ez soilik militarra.

Lurraldeetara sartzeko aukerarik izan ez arren, EAEko ordezkariak Santander de Quilichao, Medellín eta Monterían egiaztatu ahal izan dute errealitate hori. Bertaraino joan ziren kontseilu komunitarioen eta herri indigenen ordezkariak beren salaketak eta proposamenak partekatzerara. Bi herri horiek (beltzak eta indigenak) babes berezia dute Kolonbiako 1991ko Konstituzio Politikoaren arabera.

ASOCIACIÓN DE CONSEJOS COMUNITARIOS DEL NORTE DEL CAUCA (ACONC).
Santander de Quilichao (Cauca)

Caucako iparraldea erregio bioanitza da, etnia eta kultura anitzekoa, non herri beltza, herri indigenak eta nekazarien erkidegoak bizi izan baitira historikoki. Kokapen geostrategikoa du, Pazifikoko kostaldearekin eta herrialdearen erdigunearekin lotuta baitago, eta aberastasun mineralak eta hidrikoak dauzka

(Cauca ibaia eta haren ibaiadarrak). Ondorioz, oso erakargarria da baliabide naturalen erauzi eta "garatzeko" lanetan diharduten proiektu handientzat. Azukre-kanaberen monolaboreen eta La Salvajina (Suárez) megaproiektu hidroeletrikoaren eraikuntzaren eta ustiapenaren zioz, antzinako lurrak kendu, nahitaezko lekualdaketak eragin eta ingurumen-ondorioak sortu ziren. Horrez gain, kontuan hartzekoak dira pinu eta eukaliptoaren laboreak, legez kanpoko meatzaritza (urrea eta hidrokarburoak), legez kanpo erabiltzen diren laboreak eta narkotrafikoa.

Biztanleak pobrezia-egoeran daude eta oinarritzko beharrian ugari bete gabe dituzte landa-jabetzen kontzentrazio handia dagoen eskualde horretan. Lurra kanaberen nekazaritza-industriaren esku dago batez ere, zeina emankortasun altuko lurzoruetan garatu baita; baliabide hidrikoak, makinak eta nekazaritzako gai kimikoak intentsiboki erabili dira, eta, beraz, lurron emankortasuna kaltetu da.

Beltzen komunitateek eta beren lurraldeek krisi humanitario luzea bizi dute. Krisi horren jatorria historian zehar jasan duten egiturazko arrazakeria, diskriminazioa eta bazterketa dira. Krisi hori areagotu egin zen gatazka armatuarekin, segida eman baitzion eskubideak eta lurraldeak ukatzeko eta desjabetzeko eta kultura besterentzeko prozesu bati.

Indarkeriak Cauca iparraldea gogor jo zuen eta "gune gorri" izendatu zen garaian, La Salvajina presa, zona frankoak eta kanaberaren monolaboreak eraiki eta sendotu ziren.



Halaber, erregio horren ezaugarri dira antolaketa-prozesuak, gizarte-prozesuak eta giza eskubideen arloko prozesuak. Herri beltzarentzat, lurraldea bizi-espazio bat da, zeinak haien beharrianak asetzeko baliabideak eskaintzen baitizkie. Gainera, jendeak bere kultura, mundu-ikuskerak, harreman soziokulturalak eta nortasuna sortu eta birsortzeko lekua da. Beltzen herria gobernu-sistema propioaren bidez antolatzen da.

ACONCen barruan guztira 43 kontseilu komunitario daude, 10 udalerritan kokatuak. Gobernu nazionala kontseilu horietako 6 baino ez ditu aitortu, eta erabaki horrek eragin handia du historian zehar indarrez kendu zaizkien eskubideak legalki erreklamatzeko.

Justizia eta gobernu propioaren sistema honez eta babes kolektiboko neurriez (*guardia cimarrona* deritzana) gain, beste prozesu batzuk ere kontuan hartu behar dira, besteak beste, Palenqueko hizkuntzaren errekuperazioa, nortasuna berresteko mekanismoa, ohiturak eta herri beltzaren barneko harremanak.

2019an ere bisitatu genuen eremua, eta ACONC, Asociación de Mujeres Afrodescendientes del Norte del Cauca (ASOM) eta ACIN elkarteekin bildu ginen, La Trinidad finkan (Vereda Lomitas). Segurtasun-gabeziak gora egiteak leku horretara joatea eragotzi digu EAEko ordezkarioi, baita PCN, ANUC eta ACIN

elkarteetako ordezkariekin eta ACONC osatzen duten kontseilu komunitarioetako ordezkariekin biltzea ere. Topaketa hori Santander de Quilichaon izan zen.



Caucako iparraldeko erkidegoek berriaz aldarrikatzen dute beren lurralde etnikoen antzinatasuna eta aberastasun kultural handia. Beltzen herria, herri indigenak eta nekazarien erkidegoak Consejo Territorial

Interétnico e Intercultural kontseiluaren inguruan antolatu dira, eta elkarrekin egin dute Bizitza Plana (Plan de Vida).

Erkidegoek nabarmendu dute krisi humanitarioa larriagotu egin duela COVID-19aren pandemiak, eta erakunde sozialak arrisku larrian jartzen dituzten hiru gatazka-egoera aipatu dituzte:

- Gatazka armatua: narkotrafikoak eta legez kanpoko meatzaritzak sustatzen dute, eta nabaria da legez kanpo ari diren talde armatuen presentzia eta eragina. 10 sarraski izan dira 2018tik aurrera. Estatuak Indar Publikoa baliatu du erantzuteko.
- Hiri-indarkeria: banden jarduna areagotu da gazteek lanerako aukerarik ez izatearen ondorioz (3.500 gazte inguru daude egoera horretan).
- Lurra-lurraldea gatazka: indartu egin behar dira antolaketa-harremanak.

Aipatzen dute Estatuak dela biztanleak biktimizatzen dituzten eragile nagusietako bat. Gobernu nazionalak 300 akordiotik gora sinatu eta itundu ditu herri beltzarekin, eta ez dira bete, ezta 2016ko bake-akordioa (bereziki, etniarteko kapituluari buruzkoa) eta lurraldeen titulazio kolektiboari buruzko plan, programa eta proiektuak ere. Inguruabar horiek areagotu egiten du biztanleria afroaren zaurgarritasuna.

Aldi berean, eragile armatu berriak sortu dira: FARC-EP erakundeko disidenteez osatutako zutabeak, Águilas Negras taldea eta kartel mexikarrak. Horrez gainera, base militarrek daude. Uste da legez kanpoko zazpi egitura armatu dihardutela erregioan, eta gero eta handiagoak direla. Horrez gainera, gora egin du lurraldeen militarizazioak. Hori guztia kontuan hartuta, erkidegoen susmoa da Estatuako erakundearen (Indar Publikoa) kooperazioa edo konplizitatea dagoela. Lehenago, lurralde hauek igarobideak ziren. Gaur egun, eragile armatuak bertan finkatuta daude, eta, ondorioz, areagotu egiten da biztanleen zaurgarritasuna eta haien antolaketa-eren gaineko eragina.

Salatzen dute gero eta gehiago direla legez kanpoko laboreak, zeinak langabezia-tasa altuak dituzten emakume eta gizon gazteen mantenu nagusia baitira askotan. Programa Nacional Integral de Sustitución de Cultivos Ilícitos (PNIS) programa bi udalerritan (Miranda eta Jambaló) baino ez da sinatu. Gorte Konstituzionalak exijitu du kontsulta-prozesuak egiteko inplikaturako

erkidegoekin, ezin baita hitz egin laboreak kentzeaz parte-hartzean oinarritutako alternatibarik eskaini gabe.

Horrez gainera, legez kanpoko meatzaritza, aireko fumigazioak eta gatazkaren gorakada aipatu dituzten, baita gazteen errekrutatze behartua ere.

Kezkatuta daude azukre-lantegien eta legez kanpoko meatzaritzaren kontrolik gabeko isuriek ibaietan eragindako kutsadura dela eta. Eta Cauca Corporation Autónoma Regional erakundeak premiatzen dute ingurumena eta biztanleen osasuna zaintzeko betebeharra bete dezan.



Aurkeztutako testuinguruaren konplexutasunaren aurrean, herri beltzaren, herri indigenen eta nekazarien erkidegoen ordezkariak esan dute oso garrantzitsua dela nazioarteko jarraipena eta laguntza, lurraldeen egoera ikusarazteko eta bertan gera daitezen laguntzeko.

Apustua da eusten jarraitzea. Lurraldean bakea lortzeko, Consejo Interétnico e Intercultural kontseiluaren Bizitza Plana eta lurralde-akordio humanitarioak garatu

behar dira, erakundeak eta *guardia cimarrona* eta guardia indigena indartu behar dira, giza eskubideen behatoki bat sortu behar da Cauca iparraldean eta Gobernu nazionalaren eta Nazio Askapenerako Armadaren (ELN) arteko elkarrizketei berrekin behar zaie.

ORGANIZACIÓN INDÍGENA DE ANTIOQUÍA (OIA). Medellín (Antioquía)

Antioquía gatazkak gehien eragindako departamenduetako bat da. Cauca eta gero, 2021ean eraildako defendatzaile gehien dituen erregioa da (23), baita 2020ko urtariletik azarora bitartean sarraski gehien izan dituen ere (77tik, 18), Indepazen datuen arabera. Egoera oso kezkarria da Cáceresen, Tarazán, Caucasian eta hego-mendebaldean. Bake-akordioa sinatu zenetik, hau izan da indarkeriaren ondorioa: 149 pertsona erailda, beste 85 mehatxupean, 11 atentatu eta 11 zauritu⁹. Bajo Cauca indarkeria handieneko azpieskualdea da.

Proceso Social de Garantías erakundeak adierazi du indarkeria horien eragilea dela giza eskubideen defendatzaileek legez kanpoko negozioak direla-eta egindako salaketak: lurren okupazio informala, aktiboen garbiketa, udalen estortsio-kateak, legez kanpoko taldeek eskainitako segurtasun pribatua eta legezko negozioen ustelkerian duten esku-sartzea.

⁹ La paz en el terreno. Kazetaritzako edukia eta bake-akordioaren ezarpena monitorizatzeko datu-baseak dituzten tresnak biltzen dituen plataforma. Bi gai zehatzei buruzko informazioa biltzen du: lider sozialen egoera eta FARC-EP erakundearen gudari ohien gizarteratzea. Con Lupa fundazioaren Rutas del Conflicto hedabidearen eta El Espectador hedabidearen Colombia 2020ren ekimena. Datuak 2016ko azaroaren 24tik 2020ko urriaren 27ra bitartekoak dira.

Legez kanpoko erabilera duten laboreekin eta hiriguneetan estupefazianteak sartzearekin batera, departamenduan dagoen krimen antolatuaaren dinamikak ulertzeko arrazoi nagusietako bat da haren kokapen geoestrategikoa: irteera naturalak ditu Atlantikora, Urabáko golkotik eta portutik, eta Pazifikora, Atrato ibaitik eta Chocó departamentutik. Kokapen estrategikoa da narkotikoen eta armen itsasoko trafikorako.

Lider sozialek baieztatu dute legez kanpoko negozio horiek eta ibilbide estrategiko horiek paramilitarismoaren oinordeko diren taldeen kontrolpean daudela batez ere, edo borrokan ari direla kontrolatzeko. Talde hauek dira: Autodefensas Gaitanistas de Colombia (AGC) edo Clan del Golfo, gehien hedatutako eta finkatutako eragilea, eta Bloque Virgilio Peralta Arenas (BVPA) edo Los Caparros taldea.

ELN eta FARC-EPko disidenteak arrisku-faktore bat dira ere, baita Mexikoko Sinaloako kartela eta Jaliscoako Nueva Generación kartela ere.

Azkenik, Ituango udalerrian dagoen Hidroituango megraproiektu hidroelektrikoa energia sortzeko presa bat da eta herrialdeko lekualdatze masibo handienetako bat eragin du, baita ingurumen- eta gizarte-inpaktu larriak ere. Halaber, inpaktu horiek salatzen ari diren eta lurraldean jarraitzea defendatzen duten pertsonak mehatxuak eta jazarpena jasan dituzte, eta erailak izan dira. Eraikitzeko, BBVAren finantzaketa izan zuen, Garapenerako Banku Interamerikarraren (BID) bidez.



OIA kabildo indigenen elkarte bat da, eta erregio horretan bizi diren 5 herri indigenak ordezkatzen ditu: Senú, Embera Eyábida, Embera Dóbida, Embera Chamí eta Guna Dule. Erakundea 224 erkidegok osatzen dute. Duela 30 urte baino gehiagotik

hona, herri indigenen eskubideak aldarrikatzen ari da lanean. Haren borroka hauek izan zituen ardatz: gobernu indigenak eratzea eta finkatzea, lurraldeen aitortpena eta tituluak lortzea eta bizitza eta giza eskubideak defendatzea, gerraren erdigunean existitzeko eta eusteko estrategia gisa, naturaren aberastasunen gaineko interes ekonomikoak eta lurraldean dauden eragile armatuak mehatxuen, lekualdatze behartuen eta erailketen erantzuleak baitira.

Erakundeak salatu du 2019tik aurrera areagotu egin dela jatorrizko erkidegoen kontrako indarkeria, eta lekualdaketa behartuek gora egin dutela (2016tik 2020ko urrira bitartean, 52 lekualdatze izan ziren). Halaber, hauek salatu ditu: mugitzeko murrizketak, lurraldeetan legez kanpoko talde armatuak daudelako; 12 urtetik gorako adingabeen errekrutatze behartua (umeez eta nerabeek jasaten dute errekrutatzea, orain ordainketaren, «maitemintzearen» eta sexu-abusuen bidez); Estatuak talde paramilitarrekin duen tolerantzia, eta pertsonen aurkako minen berragerpena, zeinak gero eta gehiago ari baitira familiak

setiatzen eta oinarrizko aleak edo janari prestatuagoak eskuratzeko aukera eragozten.



OIAk Giza Eskubideen Kontseilaritzak Ituango, Murindó, Frontino, Jardín eta Caucasia udalerrietara egindako misio humanitarioen emaitzak aurkeztu zizkigun. Misioen helburua zen lurraldean bakea eraikitzea, bizitza, kultura, nortasuna, autonomia eta herriek bere

etorkizunaz eta bere lurraldeez erabakitzeko duten eskubidea bermatzeko. Centro de Cooperación al Indígena –CECOIN– zentroarekin koordinatuta egin ziren misioak, eta erkidegoek zuzeneko parte-hartzea izan zuten.

Biktimak eragiten dituzten gertaerei (pertsonek aurkako minek eragindako heriotzak eta istripuak, konfinamenduak, seinaleztatzeak, erailketak, gizarte-kontrola, adingabekoen errekrutatzea, legez kanpoko meatzaritza, mikrotrafikoa, sarraskiak edo lekualdatze behartu masiboak, besteak beste) dagokienez, erakundeak hainbat eskaera egin dizkie Antioquiako Mesa humanitaria indígena de DDHH mahai¹⁰ –topaketa bat egin zen mahai horrekin– sartuta dauden Estatuko erakundeei eta erakunde humanitarioei.

Testuinguru horren aurrean, OIAren ordezkariak eta lekukotza eman duten pertsonak MINGA aldarrikatzen dute eskubideak eskatzeko tresna gisa, eta adierazi dute oso garrantzitsua dela nazioarteko jarraipena eta laguntza, inoiz baino garrantzitsuak baitira lurraldeetan sartu ahal izateko. Halaber, beste hau aldarrikatzen dute: antolaketa eta guardia indigenak indartzea; aterpe-etxea martxan jartzea; misio humanitarioak egitea; giza eskubideen behatoki bat sortzea, eta lurraldeetan meatzaritza geldiarazteko estrategian laguntza ematea eta estrategia hori indartzea.

RESGUARDO MAYOR DEL ALTO SAN JORGE (Montería, Córdoba)

Córdoba departamenduaren ezaugarriak dira bioaniztasuna, aberastasun naturalak eta kulturalak (herri indigenak, afroa eta nekazariak) eta antolaketaren arloko aberastasuna, zeinari esker lurraldeetan dagoen indarkeriaren aurrean eutsi ahal baitu.

Erakunde-ahultasuna –lurraldeetan Estatuak presentziarik ez izatean islatuta– eta batez ere abeltzaintzarako erabiltzen den lurraren jabetzaren kontzentrazio

¹⁰ Mahaia erakunde hauek osatzen dute: Gobernación de Antioquia (Gerencia Indígena, Secretaría de Gobierno, Paz y no Violencia, Secretaría de Inclusión Social), Unidad para la Atención y Reparación Integral a las Víctimas (UARIV), Defensoría del Pueblo, Personería Delegada para los Derechos Humanos y Asuntos Étnicos, Valle de Aburráko Procuraduría Provincial, Organización Indígena de Antioquia (OIA), Bakerako goi-komisarioaren ordezkaria, Instituto Colombiano de Bienestar Familiar, Unidad Nacional de Protección (UNP) unitatearen ordezkaria, Unidad de Restitución de Tierras unitatearen ordezkaria, ACNUR, MAPP OEA, Unidad de Búsqueda de Personas Desaparecidas (UBPD) unitatearen ordezkaria, Jurisdicción Especial de Paz para Asuntos Indígenas jurisdikzioaren ordezkaria, Colombia Libre de Minas, PNUD, Mesa de Víctimas mahaiaren ordezkaria eta gonbidatu bereziak.

handia dira departamenduaren beste ezaugarri batzuk. Lurra eskuratzeko borrokak jabego handi horien zerbitzura dauden talde armatu paramilitarrak sortzea eta sendotzea ekarri zuen. Jabego horiek lotura estuak dituzte eskualdeko elite sozial eta politikoarekin eta narkotrafikatzaileekin, zeinek aukera aparta aurkitu baitzuten latifundio handi horietan legez kanpoko salgaiak –kokaina eta armak, esaterako– modu seguruan eramateko itsasoraino (Aponte, 2014, 97. or.). Jabego horiek sendotzearen ondorioz, eskualdea herrialdeko bortitzenetako bat da gaur egun.

FARC-EPko kideak gizarteratzeko prozesuaren ondorioz, talde paramilitarrek edo GAPDek¹¹ eta FARC-EPko kide ohiek hartu zituzten landa-eremuak. Lurraldearen kontrola lortzeko borrokatzen diren legez kanpoko talde armatuei koka-sailak, urre-meatzaritza eta estortsioak interesatzen zaizkie (Defensoría del Pueblo, 2018a).

Gaur egun, ekoizpen-jardueraren arloan, burdina-, nikel-, ikatz- eta urre-meatzaritza da nagusi, abeltzaintza estentsiboarekin eta basoko laborantzekin, nekazaritza-industriako laborantzekin, nekazaritzakoekin eta legez kanpoko erabilera dutenekin batera.

Gatazka-egoera horren barruan, erauzketarako bi megaproiektu handi garatu dira: 1995ean eraikitako Urrá presa eta Cerro Matoso meatzea, kontinenteko lur gaineko nikel-meatze handiena.

Gatazka armatuaren eta meatze-erauzketaren arteko loturak ikertzen dituzten azterlan batzuek ezarri dute, giza eskubideak gehien urratu diren aldiak eta gero (1995-2010), areagotu egin zirela erauzketa-jarduerak, kointzidentzia hirukoitza esan zaionaren barruan: indarkeriak eraginda abandonatutako lurraldeak, lekualdatze behartuen indize altuak eta meatze-erauzketarako emandako hektareak (Anaya & Coronado, 2013, 19. or.).

Puerto Libertador udalerrria, non El Alacrán mehatzea baitago, Alto San Jorge azpieskualdean dago. 2016an, 333.720 biztanle zituen (% 7, indigena, eta % 10, afrikarren ondorengoak). Bete gabeko oinarrizko beharrezanen indizea % 60 da, eta biktimizazio-indizeak altuak dira: 1997. eta 2008. urteen artean, Alto Sinú azpieskualdearekin batera, bertan izan ziren departamendu osoan izandako lekualdatze behartuen % 86.



2013, Defensoría del Pueblo bulegoak ohartarazi zuen meatzaritzako enpresa handiak masiboki erosten ari zirela lurralde udalerrian, eta 2019ko martxoan nekazarien eta indigenen 700 familia baino gehiago lekualdatu ziren herrigunerantz, talde armatuek legez kanpoko ekonomiak

¹¹ Autodefensas Gaitanistas de Colombia – AGC-, Caparrapos edo Caparros eta Los Paisas.

kontrolatzeko zituzten borrokek eraginda. Azken bizpahiru urteetan izan diren lekualdatze behartu masiboak ez ziren aspaldi gertatzen. Horrez gainera, bake-akordioa ez denez batere ezarri, ez da aldaketa errealik egon, bereziki paramilitarismoaren oinordeko diren egiturak desegiteari dagokionez.

2018ko azaroan, Defensoría del Pueblo bulegoak beste alerta goiztiar bat egin zuen, eta ohartarazi zuen FARC-EPko kide ohiek osatutako Nuevo Frente 18 Román Ruiz-Cacique Coyará talde berriaren helburua zela lurraldeen kontrola berreskuratzea. Egoera horrek lekualdatze behartuak, konfinamenduak, mehatxuak eta atentatuak ekarri ditu, eta landa-eremuko erkidegoak Indar Publikoen operazioen edo kontrola eskuratu nahi zuten taldeen ekintza bortitzen eraginpean egon dira (Defensoría del Pueblo, 2018b).



Alto San Jorge eskualdeko Resguardo Indígena Zenú babeslekuak 960 hektarea baino gehiago ditu eta Montelibano eta Puerto Libertador udalerrietan kokatutako El Intento, El Porvenir, La Meta, Playa Rica, Las Mirellas, Buenos

Aires eta San Nicolás erkidegoek osatzen dute. Gaur egun, 15.968 pertsona daude bertan; kabildo nagusi bat du, eta 119 kabildo txiki.

Babeslekua kokatuta dagoen lurraldea legez kanpoko taldeen arteko borrokaren eraginpean dago (narkotrafikoaren ibilbidea, ereitea, meatzaritza), eta inguruabar horrek erkidegoen lekualdatze behartuak eragin ditu, baita mehatxuak, jazarpenak eta liderren erailketak ere. Gobernu nazionalak meatzeen tituluak adjudikatzeak ere eragin ditu lekualdatze behartuak eta indarkeria.

Meatzaritza-enpresek eragindako ingurumenaren kutsadurari, lurraren jabetzaren arazoa gehitzen zaio, Agencia Nacional Minera agentziaren emakiden bitartez enpresei adjudikatzen baitzaizkie, baita legez kanpoko eragile armatuak egoteak sortutako arazoa ere, oinarrian narkotrafikoaren negozioa dagoelarik. Erakundeen presentzia eskatzen denean, Indar Publikoaren bidez baino ez da gauzatzen.

Lurraldeetan dagoen segurtasun-gabeziaren eta indarkeriaren ondorioz, EAEko ordezkarietako kideok ez genuen aukerarik izan Monte Líbanora joateko. Han egin behar zen, hasieran, Alto San Jorge eskualdeko Resguardo Mayor babeslekuko ordezkariekin egitekoa zen topaketa. Bilera Monterían egin zen azkenean.



«Lurrik gabeko indigena bizitzaren zati bat falta zaion pertsona bat bezalako da, gure ama baita bizitzen jarraitzeko janaria, ura eta airea ematen dizkiguna. Eta erauzketa-enpresa horiek hil egiten gaituzte hainbeste kutsadurarekin, eta, gure lurraldeetan bizi ditugun giza eskubideen urraketak salatzen baditugu, legez kanpo diharduten eragileen jomuga gara, eta eragile horiek aipatutako enpresek ordaintzen dituzte, beren interesak babes ditzaten. Horrek odol ugari isurtzea eta lekuz aldatu behar izatea ekarri du» salatu du zenu lider batek.

Salatzen dute Gobernu nazionalak ez duela babesteko mekanismo edo tresna eraginkorrik ezarri indarkeriak lekuz aldatzera behartu dituen liderrak lurraldeetara itzultzeko aukera izan dezaten. Halaber, adierazi dute UNPk ez duela errespetatzen guardia indigenaren ikuspegi etnikoa. Erreklamatzeko dute guardiak berak egitea babes-lanak, eta trebatzeko, entrenatzeko eta atsedean hartzeko gune propioak izatea.

Eta adierazten dute gatatzaren kalte emozionalak ez direla indibidualak soilik. Mesfidantza sortzen da auzokideen eta lagunaren artean, familiaren eremuari eragiten dio, bere minari jaramonik egin ezin dionak nekez izango baitu beste batzuek arduratzeko gaitasuna.

Labur esanda, salatzen dute ez dagoela erantzun orokorrik herri indigenen eta zenu herriaren beharrezkoak betetzeko. Ez dira errespetatzen haien autonomia, gobernatzeko era, haien agintariak eta haien guardia indigena.

BOSGARRENA: 2016an, gatazka gairatzeko, Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPk sinatu zuten **bake-akordioa ez inplementatzea** da herrialdeak bizi duen eta ordezkaritza honek egiaztatu duen **krisi humanitarioaren oinarria**.

Aurtengo urtarrilean, NBEk Kolonbian duen egiaztapen-misioari buruzko hiru hilean behingo azken txostena argitaratu zen. Antonio Guterres Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia pozik agertu zen akordioa ezartzeko prozesuan izandako aurrerapenengatik, batez ere FARC-EPko kideak gizarteratzeari dagokionez. Hala ere, kezkatuta agertu zen gudari ohien eta lider sozialen segurtasunaren inguruan, eta ekintza eraginkor gehiago eskatu zituen indarkeriaren gogortzea geldiarazteko¹².

Urtarrilean ere, SU-020/22 epaian, Gorte Konstituzionalak **egoera inkonstituzionala** deklaratu zuen **azken bake-akordioaren biztanle sinatzaileen**, haien familien eta Comunes alderdi politikoa osatzen dutenen **alde jasotako segurtasun-bermeen ezarpen-maila oso eskasa zelako**. Gorteak arrazoia eman zien zortzi tutoretza bereizi aurkeztu zituzten herrialde osoko gudari ohiei. Tutoretza horietan alegatzen zuten segurtasun-bermeak falta zirela lurraldeetan, Estatuak bete ez zituen akordioko beste alderdi batzuekin batera¹³.

¹² <https://www.elespectador.com/colombia-20/paz-y-memoria/secretario-general-de-la-onu-consolidar-la-paz-requiere-de-acciones-mas-efectivas/>

¹³ https://www.elespectador.com/judicial/corte-constitucional-declara-estado-de-cosas-inconstitucional-en-el-acuerdo-de-paz/?utm_source=interno&utm_medium=boton&utm_campaign=share_notas&utm_content=boton_twitter_share_notas



Erakundeek adierazten dute Ivan Duqueren Gobernuak berrinterpretatu egin duela bake-akordioa. Izan ere, Duquek, hizkera ofizialaren ordez, "bakea legezkotasunarekin" kontzeptua erabiltzen du. Kontzeptu horren barruan La Habanan adostutako zenbait alderdi jasotzen ditu, baina edukitik urruntzen da eta ez ditu

aintzat hartzen akordioa ezartzeko funtsezkoak diren ekintzak.

Horrez gainera, salatzen dute ez dagoela finantzaketarik akordioak sortutako erakundeentzat, eta oztopoak jartzen ari direla ELNrekin gatazkaren irtenbide negoziatu bat lortzeko. Esandako guztiaren ondorioz, talde armatuak berrantolatatu egin dira herrialde osoan, eta, beraz, eskualde askotan larriagotu egin dira giza eskubideen urraketak eta krisi humanitarioak.

Azken Akordioaren CSIViko Secretaría Técnica del Componente de Verificación Internacional idazkaritzaren¹⁴ txostenek ohartarazten dute, besteak beste, akordioaren ezarpenaren integritasuna urria dela, baliabide naturalen erauzketatik ateratako errenten bila ari diren ekonomiak daudela eta araudi hau ezartzea falta dela: landa-erreforma integrala (nekazaritzaren arloko jurisdikzioa), protesta baketsurako estatutu-legea, erreforma politikoa eta zigor-tratamendu berezia kultibadore txikientzat.

Idazkaritza horren txostenetan jasotzen da atzerapen nagusiak 1. puntuan (landareforma integrala) eta 2. puntuan (parte-hartze politikoa) daudela. Txosten honetan bi alderdi horiek ditugu ardatz, funtsezkotzat jotzen baititugu gatazka gainditzeko.

Landa-erreforma integralaren (RRI) helburua da landaren egiturazko eraldaketa, batez ere urrun eta gatazkaren eraginpean dauden eskualdeetan. Lurra botere politikoaren eta ekonomikoaren iturri izan da, eta izaten jarraitzen du. Lurra eskuratzeko eta jabetza formalizatzeko zailtasun handiek mugatu egin dute nekazaritza-garapena eta -ekoizpena, eta herrialdeko indarkeria eta adierazpen armatu ugari eragin dituzte.

Puntu honetan, hiru gai estrategiko daude:

1. **Lurraren eskuratzeko eta erabilera egokia.** Gai honetan hiru lorpen nabarmentzen dira: doan banatzeko lurren funtsa, eskaintzaren arabera formalizatzeko eta jarduteko mekanismoen definizioa eta xede anitzeko katastroaren hasiera.

¹⁴ <https://www.cinep.org.co/Home2/temas/secretaria-tecnica.html>

Lurren funtsa lorpen partziala da, oraindik lur gutxi banatu baitira. 2021eko ekainaren 30era arte, Agencia Nacional de Tierras (ANT) agentziak



jakinarazitakoaren arabera, aurrez ikusitako 3.000.000 hektareen % 46,2 sartu dira. Haietatik, % 7,8 eman dira 52 hilabetean. Erritmo horretan, aurrez ikusitako 12 urteko epean itundutakoaren % 21,7 baino ez da banatuko.

2017ko 902 Lege Dekretuaren babespean, lurak eskaintzaren arabera formalizatzeko prozedurari esker, lurralde-estaldura handiagoa da. Hala ere, ez da egin formalizatzeko plan masiboa, ez da sortu nekazaritzako jurisdikzioa eta ez da aurrerapenik izan nekazaritzarako erreserba-eremuak (ZRC) eratzeko prozesuan. Guztiak dira landa-lurren segurtasun juridiko handiagoa lortzen lagunduko duten neurriak.

Xede anitzeko katastroari dagokionez, nabarmendu behar da martxan jarri dela, 2017-2020 aldian 47 udalerrri eguneratu direla eta beste 143 lehenetsi direla. Hala ere, orain arte lau udalerritako katastroa baino ez da egin (guztiaren % 5,4), eta ezarritako helburuetatik urrun dago.

2. **Lurralde-ikuspegian oinarritutako garapen-planen** kasuan, nabarmendu behar da eskualdeen eraldaketarako ekintza-planak (PATR) onetsi eta ezartzen hasi direla, parte hartzeko prozesu garrantzitsu batekin, eta ibilbide bakarreko orriak egin direla. Hala ere, erkidegoek adierazi dute behera egin duela parte-hartzeak, eta ezarpen-orri aktiboa duten ekimenen ehuneko txikia dela.
3. Azkenik, **landa-erreforma integralerako plan nazionalari** (PNRRI) dagokienez, landa-eremuko pobrezia murrizteko eta desagerrarazteko aurrez ikusitako 16 planetatik 10 egin dira. Hala ere, RRI ezartzeko behar den araudirako 12 hilabeteko epea jarri zen (2018rako egon behar zen eginda), baina hiru kasutan baino ez da bete. Horren ondorioz, zaila izan da ezarpen integrala egitea eta RRIren barruko neurriek bat egitea.

PARTE-HARTZE POLITIKOA puntuaren helburu nagusia da elkarrizketa, bitartekaritza eta gatazka sozialen konponbidea lehenesten dituzten bide instituzionalak garatzea eta armen eta politikaren arteko lotura haustea.

Idazkaritza teknikoaren azken txostenean eta aurrekoetan aurrerapen gutxi egon direla esaten da. Akordioan jasotako instantziak eta mekanismoek muga larriak izan dituzte ezartzeko eta gauzatzeko, eta, horrez gainera, Gobernu nazionalak gune eta instantzia paraleloak sortu ditu. Gai berberak izan dituzte ardatz, baina erabakitakotik urrundutako ikuspegiekin eta gizarte zibilaren parte-hartze urriarekin.

Hori guztia osasun-krisiaren testuinguruan garatu da. Krisi horrek pobrezia eta desberdintasunak areagotu ditu, segurtasun-egoerak okerrera egitea eragin duten indarkeria-ziklo konplexuak ekarri ditu eta nazioarteko erakundeen eta gobernuen kezka piztu du, ekintza bortitzen eta bake-akordioa ezartzeko dinamika direla-eta.

SEIGARRENA: Urteko lehen seihilekoaren hauteskunde-testuingurua giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeria areagotzea ekartzen ari da. Oso kezkagarria da, indarkeria baliatuta, biktimak Bakerako 16 Barruti Iragankor Berezien eta gutxiengo etnikoen Kurul Berezien bidez Ordezkarien Ganberara sartzeko aukera blokeatzeko ahalegina.

Hauteskundeetako behaketa-misioak (MOE)¹⁵ ohartarazi du 16 barrutietan botoa emateko gaituta dauden udalerrietatik % 58k iruzurrerako eta indarkeriarako arriskua dutela: 167 udalerrietatik, 97 arriskuan daude (43, arrisku larrian; 44, arrisku handian, eta 10, arrisku ertainean).

Aldi berean, EAeko ordezkartzeko kideok uste dugu hauteskunde-prozesuak aukera ona direla hauteskundeetatik sortzen den gobernuak bake-akordioen ezarpen errealarekin, eraginkorrekarekin eta integralarekin konpromiso irmoa har dezan.

¹⁵ <https://www.moe.org.co/el-58-de-los-municipios-de-las-circunscripciones-transitorias-especiales-de-paz-presentan-algun-nivel-de-riesgo-electoral/>

Egoera horren aurrean, bizitza eta giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde, komunitate eta kolektiboen aurkako **indarkeriak bertan behera uzteko ERREKLAMATZEN DUGU**, eta neurri hauek **PREIAZ EZARTZEKO ESKATZEN DUGU**:

LEHENENGOA: Parte-hartze politikoa bermatzea, bereziki gatazka eta jazarpen politikoak historikoki gehien kolpatu dituen sektoreena; berriro ekitea ELNrekin hasitako elkarrizketei, eta paramilitarismoaren oinordeko diren taldeak eta legez kanpoko eragile armatu guztiak desegitea.

Horretarako, ezinbesteko eskakizuna da Comisión Nacional de Garantías de Seguridad batzordea deitzea eta aurrerapauso eraginkorrak zehaztea.

BIGARRENA: Prebentziorako eta babes kolektiborako mekanismoen ezarpena indartzea eta bide horretan aurrerapausoak ematea, hauen bidez:

- Publikoki aitortzea giza eskubideen defendatzaileek, haien kolektiboek eta erakundeek gizarte-justizian oinarritutako bake integrala eraikitzeke egindako lana eta lan horri balioa ematea, biktimizazio bikoitzak, estigmatizazioa eta epaiak saihestuz.
- Talde etnikoek lurraldea babesteko eta kontrolatzeko dituzten mekanismoak aitortzea eta indartzea: guardia indigenak eta *guardias cimarronas* direlakoak.
- Arriskuaren kontzeptua zabaltzea eta arlo psikosoziala eta espirituala gehitzea, eta analisi diferentzial etnikoa eta genero-analisia sartzea.
- Antolakunde sozialen eta erkidegoen giza eskubideen –bizitarako eskubidea eta protesta sozialerako eskubide legitimoa barne– egikaritze eraginkorra bermatuko duten berme politikoak sustatzea.

HIRUGARRENA: Zigorgabetasun-maila altuen aurrean, **ikerketak azkar eta inpartzialak** martxan jartzeko mekanismoak jartzea, giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxu, eraso eta erailketen arduradun material eta intelektualetara iristeko. Horretarako, hirugarrenen interes ekonomikoen eta lurren berrezarpenaren arteko harremana zehatz ikertu behar da, bai eta horiek legez kanpoko egitura armatuekin eta legez kanpoko ekonomiekin duten lotura aztertu ere.

Jarraipen berezia egingo dugu guardia indigenaren sortzaile Albeiro Camayoren eta Breiner David Cucuñameren –biak ziren CRICekoak– erailketak argitzeko prozedura judizialaren gainean.

LAUGARRENA: Antzinako herriak aitortzeko aurrerapausoak ematea, hala nola herri indigenak eta herri beltza, baita haien lurraldeen legeztatze eraginkorra lortzeko ere.

BOSGARRENA: Landa-eremuetan instituzioen presentzia bermatzea, baina ez soilik Indar Publikoaren bidez, baizik eta, batez ere, garapen soziala, ekonomikoa eta kultura bermatuko duten politika publikoen bidez, betiere ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia aintzat hartuta.

SEIGARRENA: Irmotasunez sustatzea gatazkaren biktimen erreparazio indibidual eta kolektiborako sistemak. 1448 Legea beste 10 urtez luzatzeak aukera bat ematen du legean zehazten diren helburuak lortzeko, betiere herrialdeko biktimen unibertsoarekin bat datorren aurrekontu-zuzkidura badago. Erreparazioa da, kalte-ordain ekonomikoaz gainera, zuzeneko esku-hartzea bideratzea hala behar duten biktimekin, berriro biktima bihurtzea saihestuta eta haien ahalduntzea lortzeko lan eginda. Horretarako, esku-hartze psikosozialerako baliabide

espezializatuak behar dira, prebentzioa lantzeko behar besteko hezkuntza-baliabide egokiak dituztenak.

ZAZPIGARRENA: Bake-akordioaren ezarpen erreal, eraginkor eta integralaren alde egitea. Horrek ondorio zuzena izango du lurraldeetan bizi den krisi humanitario eta segurtasuneko larria arintzeko, giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuak eta indarkeria nahiz zigorgabetasun historikoa murriztuko baitira.

Modu oso positiboan lagun dezakete horretan Comisión Nacional de Garantías de Seguridad batzordearen bilera deitzeak, egia, justizia, erreparazio eta ez errepikapenaren sistema integrala babestek (akordioaren funtsezko alderdia da) edo kapitulu etnikoa betetzeak.

ZORTZIGARRENA: Nahitaez bete behar diren giza eskubideen aldeko nazioarteko tratatuak betetzea, besteak beste, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena, hitzarmen horretan ezarrita baitago bizitzaren eta lurraldearen jabetzaren aspaldiko tituluen aurka egiten duen jarduera duten enpresak instalatu aurretik, lurralde horietako biztanleei kontsulta egin behar zaiela, eta kontsulterekin askeak eta informatuak izan behar dutela (Konstituzio Politikoa, 1993ko 70 Legea).

BEDERATZIGARRENA: Landa-komunitateek adostutako akordio humanitarioak aitortu eta sustatzea. Akordio horiek gizarteko eta erakundeetako sektore askoren babesa dute, eta babes-elementua dira borrokan dauden eragile armatuak dituzten herrietako biztanle zibilentzat.

Azkenik, EAEko ordezkarietako kideok, beste behin, gure **ELKARTASUNA** adierazi nahi diegu Kolonbian indarkeriarik eta miseriarik gabeko herrialde bat eraikitzearen alde egunero lanean diharduten pertsona, erkidego eta erakunde guztiei, eta berretsi nahi dugu **haiei laguntza eta babesa emateko hartu dugun KONPROMISOA**. Hala, adi erreparatuko diogu haien egoerari, eta segurtasun-baldintzetan lan egiten dutela zainduko dugu, eta arreta berezia jarriko dugu EAEko programan sartuta dauden defendatzaileak eta haien erakundeak (ACONC, OIA, Resguardo Mayor del Alto San Jorge) babesteko.

BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK

CEAR-Euskadi, Bilbo, 2019. *Txostena. Jarraipen-misioa, Kolonbia 2019*. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa: <https://zehar.eus/producto/mision-de-seguimiento-colombia-2019/>

Comisión Interamericana de Derechos Humanos (CIDH), Kolonbia, 2021eko ekainak 8-10. *Observaciones y recomendaciones. Visita de trabajo a Colombia*: https://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/ObservacionesVisita_cidh_Colombia_spA.pdf

Giza Eskubideen Kontseilua, saioen 46 aldia, 2021eko otsailaren 22tik martxoaren 19ra. *Informe anual del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos. Situación de los Derechos Humanos en Colombia*. 2020: <https://www.hchr.org.co/index.php/informes-y-documentos/informes-anales/9562-informe-de-la-alta-comisionada-de-las-naciones-unidas-para-los-derechos-humanos-sobre-la-situacion-de-derechos-humanos-en-colombia-durante-el-ano-2020>

Alboan fundazioa, CINEP/PPP, 2019ko azaroa. *Minería de oro y comunidades locales del Sur de Córdoba en Colombia, el caso de la mina El Alacrán*. <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/documentos/ALBOAN-MineriaColombia-es.pdf>

Indepaz. *Cifras de la violencia en las regiones 2021 (entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2021)*: <https://indepaz.org.co/cifras-de-la-violencia-en-las-regiones-2021/>

Informes de la Secretaría Técnica del Componente de Verificación Internacional de la Comisión de Seguimiento, Impulso y Verificación a la Implementación (CSIVI) del Acuerdo Final <https://www.cinep.org.co/Home2/temas/secretaria-tecnica.html>

Misión SOS Colombia, 2021ko urriaren 7a. *Informe Final. Misión de observación internacional por garantías a la protesta social y contra la impunidad en Colombia (3 al 12 de julio de 2021)*: <https://defenderlalibertad.com/informe-final-mision-sos-colombia/>

Plataforma Colombiana de Derechos Humanos, Democracia y Desarrollo (PCDHDD), Coordinación Colombia Europa Estados Unidos (CCEEU), Alianza de Organizaciones Sociales y Afines (Alianza), Bogotá, Kolonbia, 2021eko iraila. *Lecciones del aprendizaje. Autoritarismo y desigualdad. Balance del tercer año de gobierno de Iván Duque Márquez*: https://informesderechoshumanos.com/wp-content/uploads/2021/09/Libro_informe_Lecciones_del_aprendiz.pdf

Somos Defensores programa, 2021. *RESISTE. Informe semestral enero-junio 2021*: <https://somosdefensores.org/>

Rutas del Conflicto, Con Lupa fundazioa, Kolonbia, 2020, El Espectador. *La paz en el terreno: Antioquia silenciada*. <https://lapazenelterreno.com/mapas-de-riesgo/antioquia-silenciada/index.html>

WEBGUNEAK

ALBOAN

<https://www.alboan.org/eu>

Asociación de Consejos Comunitarios del Norte del Cauca (ACONC)

<http://www.aconckekelo.org/>

Centro de Investigación y Educación Popular (CINEP)

<https://www.cinep.org.co/Home2/>

Emigrad@s sin Fronteras

<http://emigradossinfronteras.org/wp/>

Eusko Jaurlaritza - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

<https://www.elankidetza.euskadi.eus/x63-homev7/eu/>

Eusko Jaurlaritza - Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza Giza eskubideen defendatzaileak

<https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak/web01-s1lehbak/eu/>

Mugarik Gabe

<https://www.mugarikgabe.org/eu/>

Organización Indígena de Antioquia (OIA)

<https://www.oia.org.co/>

Zehar: Defendatzaileak babesten

<https://defensoras.cear-euskadi.org//eu/index-eu.html>

Zehar. Bideoa: EAEko babes-programa: *Babes Gara. Nosotras Protegemos.*

<https://www.youtube.com/watch?v=dU7q6whCb9I>

Zehar: Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa

<https://zehar.eus/eu/zer-egiten-dugu/gizaeskubideendefendatzaileak/>